



Pentsamendu askeak

Gauzak ez dira horrela, gauzak horrelaxe daude. Esaldi hori iltzaturik geratu zitzaidan Gorka Urbizuren diskoa osorik eta patxadaz entzun nuen. Uste nuen aurkikuntza itzela egin nuela identifikazio horrekin, inozentea ni! Gerora ohartu naiz, *merchandising*-era-ko leloa izateaz gain, jendartean makina bat hausnarketarako parada eman duen altxor paregabea ere badela. Norberak izan ditzakeen zailtasunen edota arazoan aurrean, Urbizuren hitzek aldaketarako bideak egon daitezkeela iradoki didate, itxaropenaren atea zabalik dagoela, alegia.

Mundu globalean nozitzen ari garen aldaketa konplexua BANI (ingelesezko *brittle, anxious, nonlinear* eta *incomprehensible* hitzen laburdura) paradigma gisa definitu zuen Jamais Cascio ikertzaile estatubatuarra; hots, hauskorra, presaz dabilena, ez lineala, eta ulergaitza den mundu baten gisan. Egoera horrek, norbanakoongan hamaika eragin izan ditzake, zalantzarik gabe. Ez da harritzekoa, beraz, zaugarri, galduta, noraezean, eta hainbatetan gustura bizitzeko alternatiba garbirik ez ikustea. Hori gutxi balitz bezala, propagandaren industria masiboa pertsonak banatzera zuzenduta dago, kontsumo indibidualera bultzatzen du. Nolabait, munduaren binomioa zu eta zure mugikorra, zu eta zure saltoki handia, zu eta zure te-
lebista izango balira bezala. Sistema hegemoniko globalak ez ditu langile antolatua-
k nahi, ez du berdinen arteko elkarketarik nahi. Aitzitik, banatuta nahi gaitu, gauzak horrela direla etsita.

Zientziatik atera ohi diren ondorioetatik distantzia askora egon ohi dira erabaki politiko asko. Eta aldi berean, erabaki horietatik hainbat eta hainbat, merkatuaren interesen pean

Hausnarketa hauei guztiei jarraituz, Noam Chomsky eta Pepe Mujicaren arteko elkarrizketa hezurmamitzen duen liburuarekin topo egin nuen. Akademiko estatubatuarra da bata, politikari urugaitar ezaguna bestea, ezkertiar eta aktibistak biak. XXI. mendean bizirauteko hausnarketak biltzen dituen harribitxia aurkeztzen du 2012ko Mexikoko ikasle mugimenduaren fundatzaile izan zen Saúl Alvérezek. Iraganeko eta egungo erresistentziaz ari dira, iraganeko porrot eta lorpenez, eta baita etorkizunean beharko ditugunez ere. Horien artean, bada hamaika pasadizo eta ideia josten dituen bat: elkarlanaren aldeko eta berekoikeriaren kontrako gatazka kulturalaren beharra, hain zuzen ere. Horrek



IRATI LABAIEN EGIGUREN
EHU-KO IRAKASLE ETA
IKERTZAILEA

ezkerreko planteamenduen berrikuspe-
na eskatzen duela diote. Nolabait, his-
torikoki nostalgiara jotzeko tendentzia
duen ezkerrek, etorkizuneko erronkak
epe luzera begiratu eta ekiteko beharra,
porroterako beldurrik gabe.

Ziur naiz, emakumeon bozkatzeko es-
kubidea lehen aldiz aldarrikatu zutenek
hainbatetan entzungo zutela diskurtso
bera: gauzak horrela dira. Baita herritar
afroamerikarrek euren eskubide zibilen
aldeko mugimendua indartu zutenean
ere. Ezagunak diren adibideez gain, txi-
kitik erresistentzian dauden bestelako
zerrenda luzea bezain zabala da; baita
gurean ere. Pribilegiaduna beti izango
da aldaketarekiko zurruna, beti izango
du immobilismorako diskurtso landua.
Pribilegioaren beste aldean dagoenaren
lana izango da aldazina omen denaren
diskurtsoa deseraikitzea. Eta hori, ezbai-
rik gabe, jardunbide kolektiboa izango da.

Liburuan hainbatetan azpimarratzen
den gisan, zientziatik atera ohi diren
ondorioetatik distantzia askora egon
ohi dira erabaki politiko asko. Eta aldi
berean, erabaki horietatik hainbat eta
hainbat, merkatuaren interesen pean.
Zentzu horretan, gizarte informatu eta
konprometitua elkartu eta martxan jar-
tzeko deia hainbatetan errepikatzen da.
Maiz, aldatu ezin diren gauzetan ari ga-
rela esango digute, utopiez beteta du-
gula burua. Baina geure aurretik bidea
ireki diguten erreferenteek esango ligu-
keten bezala, ez ditzagun pentsamendu
askeak besteen mugekin giltzapetu. ●